CONDICIONES PARTICULARES

CONTROL CLIMA SMART

Control Clima Smart Iberdrola: prezioa 99 €-koa da (BEZa barne)

Penintsula eta Balear Uharteetarako kalkulatutako zergadun prezioa. Honek hartzen du barne: BEZa (% 21). Kanariar Uharteetan BEZaren ordez IGICa aplikatuko da (% 7), Ceutan IPSIa (% 10) eta Melillan IPSIa (% 7).

Control Clima Smart Iberdrola argiztatzea Smart Home Iberdrolaren produktua da, eta aukera ematen du aire girotua eta bero-ponpa infragorrien bidez telefonotik, tabletetik edo ordenagailutik kontrolatzeko. Hemen ikus daitezke produktuaren zehaztapenak eta funtzionaltasunak:

https://www.iberdrola.es/eu/zerbitzuak/ekipoak/smart-klima-kontrola

SALMENTARAKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

IBERDROLA SMART HOME

1. Xedea

Hona hemen baldintza hauen xedeak:

(a) Kontsumitzaileei jakinaraztea IBERDROLA Smart Home salmenta-terminoak eta -baldintzak zein diren. Horiei buruzko zehaztapenak eta loturiko zerbitzuen xehetasunak IBERDROLAren webgunean edo produktuen hornitzaileen webgunean ageri dira.

(b) IBERDROLAk bezeroei produktuak saltzeak alderdiei eragiten dizkien eskubideak eta betebeharrak zehaztea.

2. Geografia-esparrua

IBERDROLA Smart Home produktuak Espainiako lurraldean daude salgai.

3. Zerbitzua erabiltzeko baldintzak

Produktuen sareko ezaugarriak, mugikorretarako app-ak eta webguneko tresnak erabiltzeko, ezinbestekoa izango da sarean izena ematea eta produktuen hornitzaileen webgunean ageri diren Zerbitzuen Baldintzak onartzea. Zerbitzuak erabiltzeko, baldintza horiek irakurri eta onartu dituzula adierazi beharko duzu.

Halaber, aipatu zerbitzuak eskaintzeko produktuek erregistratzen dituzten datuak IBERDROLAri bidaliko zaizkio (hala zuzenean nola produktuen hornitzaileen bitartez); IBERDROLAk datu horiek zertarako erabili nahi dituen jakinarazi beharko dizu, eta zuk erabilera hori onartu beharko duzu

datuak erabili baino lehen.

4. Fakturazioa eta ordainketa

Produktuen prezioaren fakturazioa zure hurrengo energia-fakturarekin batera egingo da, eta hura ordaintzen duzun egunean ordaindu beharko da, bezeroak energia-kontratua badu.

Bezeroak Iberdrolarekin energia-kontratua ez badu, ekipoaren ordainketa erosketaren unean bezeroak adierazitako kontuan helbideratuz egingo da, gehienez ere 2 egun balioduneko epean.

Bezeroak ordainketa atzeratuz gero, osoa edo zati bat, aldez aurreko errekerimendurik gabe, lege-interesari dagokion urteko atzerapenaren interesa gehi ehuneko bi puntu sortuko ditu, ordainketa egiteko aurreikusitako dataren hurrengo egunetik hasita.

Aurrekoari kalterik egin gabe, ordaindu ez izaneko kasuan, eta 1720/2007 Errege Dekretuan ezartzen diren betekizunekin bat, IBERDROLAk diru-obligazioak betetzeari buruzko informazio-zerbitzuei horren berri eman diezaieke, bezeroari aurretik eskakizuna eginda, 12. baldintzan jasotakoaren arabera.

5. Produktuak ezagutzea eta bateragarritasuna

Baldintza hauek onartzean, adierazten eta onartzen duzu produktuak eta horien zehaztapenak ezagutzen dituzula. Produktu bat eskatu baino lehen, zure erantzukizuna izango da, oso-osorik, eskatu dituzun produktuak eta horiekin erabiliko dituzun ekipoak zein instalazioak bateragarriak direla egiaztatzea.

6. Etxera bidaltzen diren eskaerak entregatzea

Produktuak etxera igortzeko eskatzen baduzu, erosketa-prozesuan zuk emandako helbidean entregatuko ditugu aipatu produktuak. IBERDROLAk ez ditu eskaerak baldintza hauetan aipatutako lurraldetik kanpo banatzen.

Arazoren bat egon litekeela uste izatekotan, garraiolariaren prozedurei jarraitu beharko diezu (zehazki, kalteak jakinaraztea, erreklamatzea eta erreserbak egitea), eta salgaia onartzeari uko egin; horrez gain, garraiolariari berehala adierazi beharko diozu produktua ez dagoela baldintza onetan, eta IBERDROLAri jakinarazi beharko dizkiozu eskaerari dagokionez hauteman dituzun gorabeherak.

7. Etxera bidaltzen diren eskaerak entregatzeko epea

Etxera bidaltzen diren eskaeraren bat egin baduzu, eskaera hori entregatzeko ohiko epea 4 eta 8 egun baliodun artekoa da, entregatzeko helbidearen arabera.

Hasieran adierazitako entrega-egunari dagokionez atzerapenik egongo balitz, zure ardura izango da IBERDROLAri horren berri ematea. Horren bitartez, garraio-enpresan zer gertatu den aztertu ahal izango dugu. Ikerketa horrek gehienez ere 21 egun baliodun har ditzake. Epe horretan produktuak aurkitzen baditugu, berehala igorriko ditugu eskaera-aginduan adierazitako helbidera. Bestalde, 21 eguneko epe hori igaro ondoren ez baditugu eskatutako produktuak aurkitzen, IBERDROLAk berriz bidali beharko ditu galdutako produktuak, eta hura arduratuko da horrek eragindako gastuez.

Eskatutako produktuak eskuragarri ez badaude, ahal bezain laster emango dizugu horren berri, eta produktuak eskuragarri daudenean igorriko dizkizugu. Hori gertatzen bada eta zure eskaera ezeztatu nahi baduzu, IBERDROLAk berehala itzuliko dizu ordaindutako zenbatekoa, gehienez ere ordaindu zenuenetik 30 eguneko epean. Produktua aldatzen baduzu, igortze-gastuak zeuk, kontsumitzaileak, ordaindu beharko dituzu.

Mesedez, kontuan izan entrega-epe horiek gida gisa baino ez dutela balio. Produktuak hemen adierazitako epea igaro ondoren iristen badira, zuk ezin izango dituzu kalte-galerak erreklamatu, zenbatekorik atxiki edo eskaririk bertan behera utzi. Alabaina, galdutako produktuak agindua erregistratu zenetik 30 eguneko epean entregatuko dizkizugu, beranduenez. Hala ez bada, eskaera ezeztatu ahal izango duzu. Kasu horretan, ordaindutako zenbatekoa berehala itzuliko dizugu, baina ez bestelako kalte-ordainik.

8. Utziespen-eskubidea

Kontsumitzaile eta erabiltzaile izaera duen Bezeroak (ez dira barne hartzen merkataritza- zein enpresa-jarduera batekin edo jarduera profesional zein lanbide batekin loturiko kontratuak) bertan behera utz dezake kontratua erabakia justifikatzeko beharrik gabe eta inolako zigorrik jaso gabe, produktua jaso den edo zerbitzua aktibatu den egunetik aurrera zenbatzen hasita hamalau (14) eguneko epean, eta Iberdrolak ordaindutako zenbatekoa itzuliko dio Bezeroari. Horretarako, doako bezeroentzako arreta-telefonoaren bidez jar zaitezke harremanetan (900 22 45 22) edo harremanetarako beste bide bat erabil dezakezu, kontratuan atzera egin nahi duzula adieraziz. Atzera egitea egikaritzeak ez du inola ere kosturik ekarriko Bezeroarentzat.

9. Bermea

IBERDROLAk eskainitako produktuak bat datoz Espainiako indarreko legeriarekin. IBERDROLAk ez du bere gain hartzen kontratua guztiz edo zati batean ez betetzearen edo kontratua betetzean egon daitezkeen atzerapenen gaineko erantzukizunik, baldin eta horren arrazoia ezinbesteko gertaera bat bada.

Iberdrolak produktuaren adostasun-ezen aurrean erantzungo du, baldin eta hura entregatu eta ondorengo hiru (3) urteetan zehar adierazten badira. Bezeroak bere adostasun-eza jakinarazi beharko dio Iberdrolari doako 900 22 45 22 telefonoaren bidez, Iberdrolak produktu berri bat eman diezaion eta Bezeroarekin kudea dezan produktu akastunaren itzultzea. Produktuaren itzultzeak ez du inola ere kosturik ekarriko Bezeroarentzat.

10. Baldintza hauek hein batean baliogabetzea

Eskumendun jurisdikzioko auzitegiren batek baldintza hauetan ageri den xedapenen bat baliogabetzen badu, edo lege zein araudi batek baliogabetzat jotzen badu, xedapen hori baliogabetzeak ez dio gainerako xedapenen balioari eragingo, eta indarrean jarraituko dute.

11. Lege aplikagarria eta erreklamazioak

Espainiako legeriak arautzen ditu oso-osorik baldintza hauek.

IBERDROLAren produktuen salmenta gaur egun Espainian indarrean dauden urrutiko salmentari buruzko arauen mendekoa da.

Kontratu honekin lotuta, egoki iritzitako erreklamazioak egin ditzake bezeroak. Horretarako, erreklamazioa hona bidali beharko du: IBERDROLA CLIENTES SAU, posta-kutxa zk. 61090 - 28080 Madril; bestela, 900 22 45 22 telefono-zenbakira deitu beharko du edo IBERDROLAren beste edozein bide erabil dezake: helbide elektronikoa: clientes@tuiberdrola.es, www.iberdrola.es/clientes,webgunearen bidez eta aurrez aurre, IBERDROLAren edozein arreta-puntutan.